

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, IRUNGO ADUANA-GUNEKO ELKARTE SUSTATZAILEA SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak joan den irailaren 26an aho batez onartu zuen Irungo Aduana-Guneko Elkarte Sustatzailea SAren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

2017ko **Urteko kontuei** dagokienez, Epaitegiak **aldeko iritzia** plazaratu du.

Gainera, Sozietateak 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantza jarduera arautu duen **lege arautegia** zuzentasunez **bete duela** ondorioztatu du, nahiz kontratu baten luzapena eta gerora egin zen zabalkuntza publikotasun eta lehia printzipioak bete gabe gauzatu den. Bestalde, ezin egiaztatu izan da berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete direla 2016an egindako hautaketa prozesu batean.